

Graxi Elozegi Madariaga

A maila • 2 aipamena

Graxi Elozegi naiz, 18 urteko neska zaldibiarra. Oso gustuko dut kirola egitea, uretan murgilduz igerian ibiltzea batez ere, eta irakurtzea eta bertsotan aritzea ere oso maite ditut, besteak beste. Nor naizen badakit, eta baita zer gustatzen zaidan ere, baina etorkizunak beldurra ematen dit; batzuetan argi daukat zer izan nahi dudan, zer ikasi, non... baina badut beldur bat nire barruan, aurrera jarraitzen uzten ez didana. Nire buruan biraka dabilkidan hori ez bada benetan gustatzen zaidana, zer? Lehiaketa honetan parte hartzen dudan bigarren eta azken aldia da, batxilergoa amaitzera bainoa. Egia esan ez nuen aipamen hau irabazterik espero, eta sekulako poza eman zidan berriak! Zuek irakurtzen, nik idazten gozatu dudan bezainbeste gozatzea espero dut.



NON ZAUDE?

Non zaude?
Galdetzen diot sarri
nire buruari.
Non sartu zara?
Zergatik ezin zaitut ikusi?
Ikusezin bihurtu zara?
Ni itsutu naiz?
Eta...
Ukitu?
Zergatik ezin zaitut ukitu?
Mila galdera
errepikatzen dira nire buruan.
Ia egunero.
Zergatik?
Desagertuta zaudelako.
Desagertuta.
Desagertuta.
Halaxe omen zaude.
Hori esaten dute denek.
Baina...

Ez dut hori uste.
Gezurretan ari dira.
Gezurtiak dira.
Gezurtiak.
Badakit
Bai
Badakit, zu,
hor nonbait zaudela,
niri begira,
begi urdinekin,
begi distiratsuekin,
begi ederrekin.
Baina nik,
ezin zaitut ikusi,
usaindu.
Eta ez,
ez naiz itsua.
Haizea bezain bizkor joan zinen gure ondotik,
eta hau ez da lehengoa.
Ez.
Zu falta zara.
Zure falta izugarria sumatzen dut.
Egunero.
Egunero begiratzen dut izarretara,
zeruko izar argitsueta,
zu bezain argitsuak diren izarretara.
Zuk merezi dituzun izarretara,
ea izar berri bat jaio den edo.
Baina ez.
Zeru zabalak
lehengo moduan jarraitzen du.
Niretzat beltz.
Beltz eta ilun.
Izarrik ez balego bezala.
Nire izar bakarra,
bat eta bakarra
zu zara.

Zu zara
nire izar maite eta preziatuena.
Bakarra zarelako.

Asko maite zintudan
lehen
aspaldi
gure artean zeundenean,
eta orain,
are gehiago,
iaz baino gehiago,
atzo baino gehiago,
baina
bihar
edo etzi
baino gutxiago
maite zaitut.
Laster,
bihar agian,
edo ez dakit noiz,
izar berri bat pizten denean,
zin dagizut,
hura izango dela
nire gustukoena,
nire bihotzekoa,
nire izar kuttuna,
zuri dagokizuna izango delako.

Laster arte,
maitea.
Laster arte, bai,
hurrengo izarra,
izar argitsua,
preziatua,
distiratsua,
zurea izango delako,
nik diodalako,
zurea;
eta zeru garbia dagoenetan
zu ikusteko
aukera paregabea izango dudalako.
Oso maite zaitut.